



Oihana Arana, Ane Labaka, Josu Ozaita, Iban Garro, eta Ilargi Aristondo idazleek egonaldi bana egingo dute Getaria eta Lesakako ostatueta.

Epaimahaikideek ebatzi dute zeintzuk izango diren Getaria eta Lesakako ostatueta idazketa-egonaldi bana gozatuko duten autoreak. Aurkeztutako zortzi proiektuen artetik, sormen-prozesuan dauden poema bilduma bat, eleberri bat, etnografia lan bat, elkarrizketa, narratiba eta poesia uztartuko dituen lan bat eta saiakera bat hautatu ditu epaimahaikoak.



Oihana Arana Cardenal (Eskoriatza, 2001)

Gizarte antropologoa. Kultur dinamizatzaileria. Idazlea. Gidoilaria. Aurkezlea.

Lana garatzeko ariko da otsailaren 2tik 7ra bitartean Lesakako Pikukoborda ostatuan.

Dolu prozesu batetik abiatutako poema bilduma bat bi urteetan idatzitako poemekin onduta. Aitaren heriotzaren ondorengo bizitzaren nondik norakoetan arakatzen dute poemek.

Doluan dagoen pertsona baten egunerokotasuna kontatzen da.

Proiektua amaiera fasean dago eta 2026ko udaberrirako aurreikusten du lanaren argitalpena. Poema zuzendu, berridatzi, ordenatu eta izenburua pentsatzeko baliatu nahi du egonaldia.



Ane Labaka Mayoz (Lasarte-Oria, 1992)

Bertsolaria eta idazlea.

Sormen egonaldia Getariako San Prudentzio hotelean egingo du martxoan.

Itzuri eleberria garatzeko ariko da San Prudentzio hotelean, 2026ko martxoan.

Bi denbora-lerro harilkatzen dira eleberrian. Helduarora iritsita, egunerokotasunaren itxurazko lasaitasunaren azpian sortzen diren tentsioak eta agindu sozialak aztertzen dituen eleberria da.

Bartzelonatik jaioterrira itzulita, Ainhoak bikotekidearen herrian igarotako urte batez helduaroko erabaki nagusiei egin behar die aurre: egonkortasuna, amatasuna, lana eta harremanak. Lau urtarotan zehar, galerak, loturak eta identitatea berrantolatzeke prozesua kontatzen du eleberriak.



Josu Ozaita Azpiroz (Ibarra, 1980)

Antropologia sozialean graduatua eta masterra.

Sormen egonaldia Getariako Saiaz hotelean egingo du, martxoan.

Etnografia Getarian lana garatzeko baliatuko du egonaldia, parrillaren eta itsasoaren inguruko bizimoduak, jakintzak eta atmosferak aztertzen dituen etnografia, tesi baten baitan eta Jose Miguel Barandiaran Katedraren babesarekin.



Iban Garro Alzuri (Lesaka, 1974)

Zientzia ikasketak egindakoa, sormen munduan interesatua, eta kudeaketa lanetan batez ere aritua.

Getariako KatuKale apartamentuan egingo du sormen egonaldia.

Begiak kentzen dizkidazu lana garatzeko ariko da azaroan.

Begiak kentzen dizkidazu lan honetan, nerabezaroan gertatzen den eskola jazarpena da landu eta hausnartzen duen gaia, bai jazarriaren bai jazarlearen ahotsetik. Idazleak elkarrizketa, narratiba eta poesia uztartuko ditu bere lan honetan, kontakizun berari hiru dimentsio emateko, bi kokapen nagusitan girotutako kontakizunean.



Ilargi Aristondo Merino (Oiartzun, 1996)

UPV/EHUko Antropologia doktoregai

Lana garatzeko ariko da Lesakako Ekaitza ostatuan, 2026ko azaroaren 15etik 20ra.

Proiektu honek humanoen eta suaren arteko harremana aztertzen duen saiakera bat proposatzen du egileak, Euskal Pirinioan egindako suaren ikerketa antropologikoan oinarrituta.

Egonaldian, landa-lanean jasotako testigantzak eta material etnografikoa berridatziko ditu, idazkera akademikotik aldendu eta hizkuntza narratiboago baten bidez publiko zabalago bati zuzendutako liburuxka batean plazaratzeko.



Egitasmo hau Getaria eta Lesakako Udalek jarri dute martxan herriko hainbat ostalarirekin batera. Irabazi asmorik gabeko egitasmoa da, eta herriko turismo-baliabideak kultur-sortzaileen eskura jartzea eta euskarazko idatzizko sorkuntza bultzatzea ditu helburu. 2026aren amaieran iragarriko da hurrengo deialdia, 2027. urtean beste idazketa-egonaldiak aurkezteko.

Getariako Udala

2026/01/26